

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2024ko URTARRILA · 329 zenbakia

**Mallabiko paisaiak ikusgai
Zazpi Pago mendi-lasterketan**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Ume-kantua

Bat Matxin Parrat

(Entzuteko: www.alboka.es)

Bat Matxin Parrat,
bi Matxin Ipurdi,
hiru kolko bete diru,
lau saguzarrak jango ahal dau,
bost koskotien kosk,
sei korta bete behi,
zazpi korta bete azpi,
zortzi aska bete ontzi,
bedratzi katuai narrue eratzi,
hamar gure katuek mar-mar,
hamaika haga bete lukainka,
hamabi gure amak altzo bete madari.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabat Uzuriaga
eta Ander Gómez.

LAGUNTZAILEAK:

Ana Gómez,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Mallabiko Eskola
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Garazi Beitia, Pilar Bilbao,
Fausto Garde, Estibalitz González,
Mikel Madarieta, Mallabiko Eskola,
Valentin Mugarza, Rubén Pazos,
Nahia Ruiz Albizuri,
Edorta Unamuno,
Xabat Uzuriaga
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Maitane Mugerza Uranga eta Paule Gorritxategi Areitioaurtena · Latinoamerika

“Bidaiatzea oso polita eta interesgarria da, baina nekeza ere”

26 urteko bi ermuar hauek Latinoamerikan barrena daude iazko urritik, motxilero bezala. Herrialde ezberdinetan ibili dira dagoeneko, eta gaur egun Txilen daude, baina laster Argentinara helduko dira.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Nora joan zarete?

Latinoamerikan zehar bidaiatzeraz. Pandemia garaian hasi ginen komentatzen kanpora irteteko gogoak genuela, eta Latinoamerikak beti erakarri gaitu kulturagatik, klimagatik, hizkuntzarako erraztasunagatik, ekonomiagatik... Momentu egokia zela iruditu zitzaigunean, Kolonbiarako hegaldia hartu genuen.

Non zaudete orain?

Orain Txilen gaude, baina bidaia iparraldean hasi genuen, Kolonbian. Hortik Costa Ricara joan ginen pare bat astez, eta gero behera etorri gara, Peru, Bolivia, eta momentuz, Txilera arte. Argentinan bukatzeko asmoa daukagu, baina erabakiak pixkanaka hartzen ditugu. Auskalo non bukatuko dugun!

Nola imajinatzen zenituzten herrialde guzti horiek?


Kalean bizitza asko egongo zela pentsatzen genuen, postuak, musika, zarata... Eta gutxi gorabehera horrela izan da.

Zerbaitek harritu zaituzte?

Zelako bizitza dagoen 3.000 metrotik gora! Hasieran asko harritu gintuen altura horretan paisaia berdeak eta hiri handiak egoteak. Bestalde, Kolonbian, San Gil aldean dauden aguakateen tamainak ahozabalik utzi gintuen, kristorenak dira!

Nolakoa da bertako jendea?

Gehienetan, jende jatorrarekin egin dogu topo. Kolonbian jendea oso ona iruditu zitzaigun, sekulako alaitasuna transmititzen dute. Perun eta Bolivian





serioagoak dira, baina normalean atseginak izan dira gurekin. Txilen gurearen traza handiagoa du denak, bai bizi estiloak eta baita jendeak ere.

Zein da ohiko janaria?

Iparraldean asko jaten da arroza, platanoa, *frijolak*, oke-la eta aguakatea, dena plater batean. Estatu bakoitzean modu batera deitzen diote, baina plater berdina da. Inguru hauetan ez da ohikoa janari pikantea, baina oso martorrizaleak dira, Perun batez be... eta gu ez!

Gaztelaniaz gain, zein hizkuntza hitz egiten dira?

Perun jende nahikotxok erabiltzen du kitxua, Bolivian komunitate batzuetan aimaraz hitz egiten da, eta Txilen hitz propio asko dituzte. Horrez gain, hizkuntza indigena asko daude.

Zeintzuk dira hitz berezi horiek erabiltzen dituztenak?

Kolonbian dena zen *chévere!* Txilen denak dira *weon!* Zerbeza eskatzeko moduak ere ikasi ditugu: *schop*, *chela*... Mila hitz eta esamolde daude, toki bakoitzean desberdin!

"Asko harritu gintuen 3.000 metrotik gora paisaia oso berdeak eta hiri handiak egoteak"

"Kitxua, aimara, hizkuntza indigena asko... Mila hitz eta esamolde daude, toki bakoitzean desberdin"



Nolakoa da zuen egun arrunt bat?

Hemen egun bakoitza desberdina da. Gure helburua da bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea. Gehienetan autobusez goaz, eta nahi dugun tokira heltzen garenean zer egin eta nola enteratzen hasten gara. Normalean ez dugu ezer aurretik hartzen, oso desberdina delako bidaia bat urrunetik edo bertatik antolatzea. Behin tokira helduta askoz aukera gehiago daude.

Gustura zaudete?

Oso! Bidaiatzea oso polita eta interesgarria da, eta gauza asko ikasten dira. Hala ere, nekeza ere bada, horregatik alde batetik bestera denboratxo bat daramagunean eskertzen dugu toki finko batean egun batzuk egoteak. Laster Buenos Airesera joatekoak gara, eta bertan pare bat aste egoteko asmoa daukagu, gauzak beste modu baten bizitzeko.

Zerbait botatzen duzue faltan?

Bai, arratsalde lasai bat etxeko sofán etzanda, arrain goxo bat labean... Eta nola ez, familia, lagunekin po-teotxo bat... Maite zaituztegu!

Noiz buelta?

Martxoan itzuliko gara.

“Gomendatzeko moduko esperientzia da Euskarabentura”

Garazi Beitia · Ikaslea



Euskal Herriko kultura, historia eta geografia oinez eta euskaraz ezagutzeko aukera eskaintzen duen espedizioa da Euskarabentura, 15-17 urte bitarteko gazteei zuzendua. Bertan parte hartzeko epeak zabalik daudela-eta, aurreko edizio baten parte hartu zuen Garazi Beitia gazte ermuarrarekin egon gara, orduko bizipenak gogoratzen.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Noiz hartu zenuen parte Euskarabenturan?

2021eko udan, COVID garaia zen oraindik eta neurriak hartu behar zirenez, ohiko hilabeteko egonaldia egin beharrean 10 eguneko egin zen. Idazlan bat bidalia nuen, baina ahaztuta nuen ere, ze 2020an trantze baten moduan egon ginen denok eta deitu zidatenean sorpresa handia izan zen. Ez nekien non sartzen nintzen, zer topatuko nuen... baina jakinminenez joan nintzen.

Zuk zelan esplikatzeko duzu Euskarabentura zer den?

Ba zentsurik onenean, kaos bat, baina zentsurik onenean: izaera desberdineko pertsona piloa, txanda bakoitzeko 60 lagun, posibilitate zabalagoa norekin egon aukeratzeko... Norbait ezagutu ahal duzu, baina gehiengoak ez dugu elkar ezagutzen, egoera berdinean gaude. Iparraldekoak, Hegoaldekoak, euskalki desberdinak....

Lehen eguna zelan joan zen?

Elkar ezagutzeko eta lotsak uxatzeko jolasak egin genituen: bata, zapiarena eta bestea ordenatu behar ginela jaiotza urte eta egunetik, elkarri galdetuaz noski eta giro polita sortu zen. Egun horretan bertan gure taldeari janaria zerbitzatzea tokatu zitzaion, patatak Errioxako erara gogoratzen dut eta begiraleek esaten ziguten emozio pixka bat jartzeko. Amaitu genuen merkatuan patatak saltzen geunden itxurak egiten: “Patatak, Arabako patata goxoak!”. Oso dibertigarria izan zen!

Zein zen eguneroko dinamika?

Guk 10 eguneko egonaldia egin genuen eta gainontzeko edizioetan 30ekoa izaten denez ekintza mota desberdinak egongo dira agian. Gure esperientzia beti desberdina izango da, ze bost egun eman genituen Lapurdin eta beste bost Nafarroan, Lekarozen. Esnatzen







Euskarabenturako taldeetako bat.

gintuzten 8:00etan bozgorailuetatik, abesti batekin. Eskerrak gustukoa nuela! Gosaldu eta abarrok egin ostean, eguneko ekintzak hasten ziren. Mota askotakoak izan genituen: tribalak, ginkanak, hitzaldiren bat, elkarriz egindako masajea, euskal dantza saioak... *Akelarre* filma ere ikusi genuen eta bertan parte hartutako aktore bat etorri zen bere esperientzia kontatzera; gauza oso interesgarria iruditu zitzaidan. Batzuetan euskal *celebrity*-ak etortzen ziren, pertsona ezagunak, euren ibilbidearen gainean hitz egitera. Bestalde, gure arropa guk garbitu behar genuen eta polita izaten zen han iturriari batzen ginenean, lixiba egiten, eskuak gorri-gorri, kontu-kontari... Gauean berriketaldiekin jarraitzen genuen: goizeko ordu bietan oraindik lokartu ezinik egoten ginen!

Eta ibilaldiak?

Bai, egin genituen. Espedizio luzeak, 5-6 ordukoak, eta motzagoak ere. Larrun mendira igo ginen, Hegoaldean Zugarramurdira eta Elizondora ere gerturatu ginen... Entretenuak ziren ibilaldiak, gure artean berbetan, jolasak egiten... Beroa itzela zen batzuetan, 30^{etik} go-

“Euskarabenturan euskara sustatzen da eta han nolabait txipa aldatzen zaizu”.

“Jende piloak, euskalki desberdinak eta leku ugari ezagutzeaz gain, elkarbizitza ederra da Euskarabentura”

rakoa; hotzetik edo zirimiripean besteetan... Galdu ere egin ginen behin amaiera gabeko mendi jai-tsiara baten. Beste behin goizeko lauretan esnatu gintuzten, argi gorri gogor batzuekin, espedizio bat egiteko, kontrabandisten ibilbide bat: linternekin eta bide estuetatik ibili ginen, baraurik, erdi lo oraindik... Abenturatxoa! **Zuen artean euskaraz egitearena zaintzen zen edo bazegoen gaztelania edo frantseserako joera?** Gaztelaniara joera bai ikusi nuen, baina Iparraldekoekin bai ala bai euskaraz egin behar genuen. Egia

da Euskarabenturan euskara sustatzen dela eta han nolabait txipa aldatzen zaizula.

Maitemintzeko aukera egon zen?

Hitz egiten genuen erakartzen gintuzten pertsonen gainean eta abar, baina 10 egunetan aukera gutxi dituzu. Gerora egonaldia amaituta beste hitzordu batzuk jarri ziren eta hor badago hartu-emanak sendotzeko beste modu bat.

Begiraleekin zer moduz?

Oso gustura, oso jatorrak eta hurbilak dira, edozein arazo duzula, beraiekin hitz egin eta laguntzeko prest daude beti. Gauza asko kontatzen zizkiguten eta bereziki gogoan dut egindako euskara eta naturaren arteko loturarena. Euren esanetan, naturan landare espezie bakoitzak bere espazioa behar du, gainontzekoek errespetatu beharrekoa. Gauza bera gertatzen da hizkuntzekin: bakoitzak bere ekosistema eta funtzionamendua dauka, eta errespetatua izan behar da. Grabatuta geratu zitzaidan: nork esango zidan biologia eta sozio-linguistikaren artean harremana egon zitekeenik!

Gomendatuko zenuke Euskarabentura?

Bai, bai. Azken finean arlo askotan begiak zabaltzen dizkizu, jende asko izatean zure lagun taldea sortzeko aukera duzu, elkarbizitza moldatu behar zara, bertako jendearekin harremanetan hasten zara, leku asko ezagutzen dituzu... Nik justu Iparraldea eta Nafarroa ziren gutxien bisitatuak nituenak. Egia esan barre asko egiten duzu, baita abestu, dantzatu...

Izena emateko?

Epea martxoaren 8ra arte da eta oinarriak www.euskarabentura.eus atarian daude. Jendea animatzen dut bere proiektua bidaltzera bizipen honetan parte hartu ahal izateko.

ESKOLABARRI IKASTETXEA

HAUR HEZKUNTZA

D EREDUA

LEHEN HEZKUNTZA



**ATE IREKIAK
OTSAILAK 2, OSTIRALA
9:30EAN**

matrikula@eskolabarri.com

943179036



E s k o l a b a r r i

Mallabiko paisaiak ikusgai Zazpi Pago mendi-lasterketan

Maiatzaren 18an burutuko da Zazpi Pago mendi-lasterketa, Mallabiko herriguneko eta inguruko bideak zeharkatuko dituen proba. 9:30ean lasterketa luzea hasiko da, eta 10:00etan laburra, eta bietan jarriko dira ikusgai ezkutuko pagadiak, ur-jauziak eta zabaldu berri diren bidezidorrak, besteak beste. Horiekien batera, Oiz eta Arietzu mendi ezagunetatik ere igaroko da proba. Egitasmo honek hainbat helburu ditu, eta horiei buruz hitz egin dugu lasterketako antolaketa taldeko kide diren Xabat Uzuriagarekin eta Asier Arellanorekin.

Testua **DORLETA VIDAL**



Azaro inguruan bildu ziren lehen aldiz Zazpi Pago mendi-lasterketa-ko antolatzaileak, "zerbait egiteko asmoarekin", eta hiru hilabeteko epean eta hiruzpalau bileren ostean, 16 eta 25 kilometroko luzera duten bi ibilbide prest dituzte. Egia esateko, lantaldeko kideek elkar ezagutzen zuten aurretik, eta horrek gauzak erraztu dizkie. "Duela urte batzuk Euskal Herriko Duatloi Zirkuituko proba bat antolatzen genuen Mallabian —azaldu du Xabat Uzuriagak—. Azkena 2015ean izan zen, baina talde horretan zeuden askok kirolari lotuta jarraitu dute, eta horietako batzuk mendi-lasterketetan hasi dira". Hori ikusita eta herrian zerbait antolatzeko nahiak bultzatuta, lanean jarri dira berriro ere.

Zereginetako bat, probaren beraren ezau-garriak zehaztea izan da. Hala, bi lasterketa prestatu dituzte, maila ezberdina dutenek parte hartu ahal izateko: ibilbide luzeak 25 kilometro izango ditu eta 1.400 metroko desnibel positiboa; laburrak, aldiz, 16 kilometro eta 750 metroko desnibela. Eta bai batak eta bai besteak plazan izango dute irteera eta helmuga. Izan ere, plazari bizitasuna ematea da lasterketa honen helburuetako bat, "Bastida



taberna itxi zenetik, herrigunean ez dago ezer. Jar-
duerak sakabanatzen joan dira", adierazi dute penaz.
Baina hori ez da lasterketaren helburu bakarra, an-
tolatzaileen nahia badelako ere herrian dauden pai-
saia ezberdinak ezagutaraztea. "Duatloiarekin lortu
genuen ia ezkutuan dauden leku eta ibilbide batzuk
ezagutaraztea eta garbi mantentzea, eta orain ere ho-
rretan gabilta. Adibidez, Trabaku inguruan dagoen
ur-jauziak lehen ez zeukan irteerarik, eta orain irteera
eman diogu, ibilbide zirkularra egin ahal izateko. Eta
gauza berdina egin dugu Arietzu inguruan".

Herrigintza

Lan guzti hauek aurrera eramateko, Zazpi Pago
Kultur Elkarteak sortu behar izan dute, eta hori izan
da orain arteko lanik astunena: administratiboa, hain

Trabakuko ur-jauziaren gainean dagoen zelaiaren izena hartu dute, Zazpi pago: "Leku ia ezezaguna da, baina oso berezia", adierazi dute.

zuzen ere. Eta zergatik *Zazpi pago*? "Aukera asko izan
genituen mahai gainean, baina azkenean Trabakuko
ur-jauziaren gainean dagoen basoaren izena hartu
dugu —azaldu du Asier Arellanok—. Leku ia ezeza-
guna da, baina oso berezia". "Eta interesa sortzen du",
gehitu du Uzuriagak.

Lasterketak baditu ere herrigintzari begirako hel-
buruak, eta antolatzaileek gogoan daukate duatloi

AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

ANTIXIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

943 576 124 10.00 - 13.30
747 453 607 15.30 - 19.30

Antxixiketan info@antxixiketan.com



egunetan herrian sortzen zen giroa, "herri giroa, sare modukoa", adierazi dute, eta hori berreskuratu nahi dute baita ere. Beraz, talde eragilea osatzen duten zazpi lagunek laguntzaileak beharko dituzte lasterketa egunerako zein aurre lanak egiteko, eta dagoeneko hasi dira ere sare hori aktibatzen. Dena den, euren burua

Babesle handiekin zein herriko ekoizle txikiekin elkarlana egiteko asmoa dute, maila ezberdinean.

eskaini nahi dutenek atek zabalik dituzte, eta Elkar-tearekin jarri daitezke harremanetan zazpipago@gmail.com helbidean edota 628 32 95 96 telefonoan.

Bertako produktuak

Elkarteak lasterketaz haratago joan nahi du, eta "asteburu polita" antolatu. Horregatik, egun osoko egitaraua prestatzekotan daude: goizean puzgarriak, talo postua, arratsaldean elektrotzaranga... Eta hori lortzeko Udalarekin hartu-emanean ari dira, hala nola beste babesle batzuekin ere. Babesle handiekin lan egiteaz gain, herrian dauden ekoizle txikiekin ere elkarlanean aritzeko asmoa dute, eta korrikalarien poltsetan bertako baserrietako produktuak sartu nahi dituzte (gazta eta jogurtak, besteak beste), herrian egiten diren produktuak ezagutzera emateko.

Izen-ematea

Lasterketan izena emateko epea zabalik dago jadanik, kronoak.com atarian, eta maiatzaren 12ra arte egongo da zabalik. Guztira 350 dortsal jarri dituzte eskuragarri: 150 lasterketa laburrerako (20 euroren truke) eta 200 luzerako (25 euro). Eta lasterketa eguna heldu bitartean, taldeak sortutako kartelak eta ikus-entzunezkoak ikusi nahi dituztenek Instagramera jo dezakete (@7pago_mendi_lasterketa). Sare sozial horretan jakinaraziko da ere apirilaren bigarren asteburuan Elkar-teak deituko duen elkarretaratzea. Egun horretan, nahi duten herritar guztiak ibilbidea egiteko aukera izango dute. "Seguruenik bi taldetan banatuko gara, erritmoaren arabera, jende guztiak parte hartu ahal izateko", adierazi dute.

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Biholina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatiapablo.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Korrikaren inguruko ekitaldi kulturalak lotzeko bilera burutuko da urtarrilaren 31n

Mallabiko Korrikako ardura-dunek Korrika Batzordea deitu dute urtarrilaren 31rako, 19:00etan, Mallabiko Kultur Etxean. Bilera horren helburua

izango da Korrikaren inguruan antolatu daitezkeen ekintzei buruzko hausnarketa egitea eta lanean hastea. Batzordean parte hartzeko asmoa dutenek ez dute alde zuzeneko izena eman behar, baina arduradunek eskertuko dute asmo hura jakinaraztea (653736598 telefonoan edota ermua@korrika.eus posta elektronikoa). "Harro herri" lemapean, Irunetik Baionara joango da 23. Korrika, martxoaren 14tik 24ra bitartean. AEK-k urtarrilaren 11n zabaldu zuen 23. edizio honetako ibilbidea, eta jakinarazi zuen guztira 2.700 kilometroko ibilbidea egingo dela. Korrika martxoaren 20an helduko da Mallabira: 09:26 Goierri bidea, 09:33 Santa Marina, 09:40 Areitio gaina, 09:47 Mallabiabarrena 10, 09:51 Mikel Zarate eta 09:58 Urtiaga hiribidea 6. Gainera, egitasmo honekin kolaboratu nahi dutenek otsailaren 1etik aurrera erosi ahal izango dituzte Kilometroak.




Hilez hileko galdera txapelketa antolatuko du Berbalagunek Mallabian

Otsailean hasiko da Berbalagunek Mallabian egingo duen galdera-erantzunen txapelketa, "maiatza edo ekainera arte iraungo duena", antolatzaileen arabera. "Ez esan! Mallabiari buruzko galdera-erantzunen

jokoa" izenburua daraman txapelketa honetan, bost galdera egingo dira hilero, eta hilabete bakoitzean irabazle bat egongo da (irabazle bat baino gehiago egonez gero zozketa egingo da). Jokoa agertuko diren galderak Mallabia izango dute ardatz: historia, kultura, kirola, euskara eta egungo kontuak, besteak beste. Arduradunek adierazi dutenez, lehiaketaren helburu orokorrak dira: alde batetik, euskara sustatzea; eta bestalde, aurretik aipatutako arlo horien ingurukoak ezagutaraztea. Txapelketa bukatutakoan, "zuzeneko saio bat egingo dugu hileroko irabazleekin —aurreratu dute antolatzaileek—, eta final handia burutuko da", baina oraindik data zehaztu gabe dago.





Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOAK

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA



Coffee Lounge Gin & Beer



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Behelainoz estalitako Mallabiko eta Ermuko haranak, Zengotita gainetik ikusita.
Argazkilaria: Mikel Madarieta.



Hartza Eguna ospatuko da otsailaren 9an


Herriko hainbat kolektiboren elkarlanari esker, Hartza Eguna burutuko da aurten ere. Kalejira 18:30ean hasiko da, Santixapeko iturritik, eta bertan elkartuko dira nahi duten herritar guztiak, ahal dela, kokoz jantzita. Jarraian, Txindurri Dantza Taldeak pregoia emango du Udaletxeko balkoitik, eta kalejirari hasiera emango zaio. Kalejira horretan, Alboka Musika Eskolako trikitilariekin batera, Musika Banda ere egongo da, musikatu berri dituzten Hartzaren Koplak entzungai jartzeko.

Quico Pugès musikari katalanak Hartzaren Koplak musikatuturten, eta instrumentu bakoitzari dagokion partiturak atera ditu. Betiko koplez gain, biribilke-ta eta fandangoa sortu ditu Pugèssek, eta urtarrilaren 24an, asteazkena, Alboka Musika Eskolako Bandarekin batera grabazio saioa burutu zuten Ermua Antzokian. Hogei musikari inguru bildu ziren, instrumentu hauek



jotzeko: txirula, klarinete altua eta klarinete baxua, saxofoi altua eta saxofoi sopranoa, tronboia, tronpeta, trikitixa, bateria eta baxua.

Musikaren grabazioa egiteaz gain, abeslari talde bat ere bildu zen Antzokian, eta haien ahotsak ere grabatu zituzten. Soinu berri hauek entzun nahi dituztenak otsailaren 9an gerturatu beharko dira Hartzaren ingurura.



Probaleku z/g
(ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetze plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipirotiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)


ENKARGUAK
943 030 299

drogetenitturri.eus ataria martxan dago

Urtarrilaren 15etik aurrera, Drogetenitturri bestebide bat dauka Ermuko eta Mallabiko berriak zabaltzeko: drogetenitturri.eus webgunea.

Albisteak jasotzeaz gain, kultur ekintzak, zozketak eta agenda eskaintzen dira bertan, besteak beste.

Egin klik!



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
 @LEYTHEBARBER
 C/GOIENKALENS
 ERMUA (BIZKAIA)


uriarteasesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

albisteak iritziak agenda zozketak
komunitatea argazki-galeriak eguraldia

DROGETEN

ITTURRI.EUS

webgune berria



Ermuko eta Mallabiko
informazioa,
euskaraz



“Umeeek berehala hartzen dute trebetasuna bizikletarekin”

Aitor Hernández eta Rubén Pazos · Ermuko Txirrindulari Eskolako zuzendaritzako kideak



Urtea hastearekin batera berriro da Ermuko Txirrindulari Eskolako zuzendaritza, eta Aitor Hernándezek eta Rubén Pazosek hartu dituzte eskolaren lehendakaritza eta lehendakariordetza, hurrenez hurren. Eskola biziberritzea da haien helburu nagusia, eta horretarako txirrindularitza-modalitateak ugaritu dituzte eta horiek probatzeko aukera eskainiko diete umeei.

Testua **DORLETA VIDAL**

Elkartearen gidaritza hartu berri duzue, eta dagoneko aldaketak egin...

Bai, azkenengo urteotan eskolaren jarduera asko gutxitu da, ia desagertzeraino, eta egoera horri buelta eman nahi diogu. Horretarako, ahalik eta aukera gehien eskaini nahi dizkiegu gaztetxoei eta, errepideko txirrindularitza gain, ziklo-krosean eta MTBn, hau da, mendiko bizikletan, trebatu ahal izango dira hemendik aurrera.

Zein adin tarteko umeei daude zuzenduta jardue-ra hauek?

Zazpi eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoei.



Rubén Pazos, ezkerrean, eta Aitor Hernández, eskuman, dira Ermuko Txirrindulari Eskolako arduradunak urtariletik aurrera.

Izan ere, Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartzen da.

Gaztetxo hauek inolako esperientziarik izan behar





dute eskolan izena eman ahal izateko?

Ez, ez da beharrezkoa, eta probatzera etor daitezke inolako konpromiso barik. Horretarako ermukotxirrindularietxe@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, edo 644 65 50 85 telefonora deitu. Gainera, guk utziko diegu beharrezkoa den material guztia (arropa, kaskoa, errepideko eta ziklo-kroseko bizikletak...).

Probatu eta gero jarraitu nahi dutenek non entrenatuko dute?

Txikiek Aritzemendi pilotalekuan entrenatu ohi dute, ginkanen bitartez: konoak, oztopoak, tranpolinak... Eta horrela trebetasuna hartzen dute bizikletarekin. Nagusiekin, aldiz, Hambrea igotzen gara batzuetan buelta batzuk ematera, eta Berrizeko belodromora ere joan izan gara. Orain, gainera, Betiondoko atletismo pista erabiltzeko eskaera egitekotan gaude. Dena den, oraindik ez ditugu saio hauek definitu, txirrindulari kopuruaren arabera prestatuko ditugulako.

Entrenamenduz gain, lasterketak ere izaten dituzte?

Bai, martxotik ekainera bitartean errepideko eta MTB-ko denboraldia egiten da, eta urritik abendura bitartean ziklo-krosekoa. Bizkaiko eskola guztiak batzen dira lasterketa hauetan, eta umeak adinaren arabera banatuta egoten dira. Lasterketa bakoitzak 10-15 minutu irauten du, eta zirkuitu itxietan egiten dira: herri barruan, industrialdeetan zein mendian, baina ibilgailu-zirkulaziorik gabe. Hori izaten da guraso

askoren kezka, ea umeak errepidera aterako ditugun.

Zein alderdi lantzen dira txirrindularitzari esker?

Hain ume txikiekin oreka eta koordinazioa lantzen da lehenengo, baina segituan hartzen dute segurtasuna bizikletaren ganean. Bestalde, talde izaera lantzen da, eta jarrera onak sustatzen saiatzen gara.

Zeintzuk dira Eskolaren hurrengo hitzorduak?


Momentu honetan taldetxoak sortu nahian gabilta, eta agian hitzaldiren bat emango dugu herriko eskoletan, umeek gu ezagutzeko. Bestalde, maiatzaren 26an Ermuan burutuko den lasterketa prestatzen ari gara. Iaz arte lasterketa hau Hambren egiten zen, eta ez zuen oihartzun handirik izaten; iaz, aldiz, herrira ekarri genuen eta askoz ikusgarriagoa izan zen. Aurten ere bide horretatik jarraitu nahi dugu.

June Lopez motorzale ermuarra enduroko txapeldun nazionala sailkatu da

Enduroko Haur kategorian 2023 urteko Espainiako eta baita Nafarroako nesken txapelduna geratu da June Lopez, denboraldian zehar hainbat lasterketatan parte hartu eta irabazi ostean. Poz ikaragarria ekarri dio irabazteak 14 urteko neskatu honi, aurrera jarraitzeko ilusioa, erronka berriei begiratzeko aukera... Motorrekiko bere zaletasuna bidelagun beti, atsedetik gabe trebatzen eta entrenatzen jarraitzen du, aurten ere Espainiako txapelketan parte hartzeko asmoa jomugan.



Ermuan Kantuan egitasmoaren lehen hitzordua otsailaren 13an izango da



Euskal Birusa Euskara Elkartearen eta Gazte Asanbladaren elkarlanari esker, Ermuan Kantuane-ko hainbat saio burutuko dira 2024an zehar. Horietako lehena otsailaren 13an izango da, asteartea, 18:30ean, inauterietan batera, eta kantu kalejira honetan parte hartu nahi dutenak Patxi Plazara hurbildu beharko dira. Bestalde, abenduko aldizkarian

argitaratu genuen bezala, Ermuan Kantuane-ko liburu berria kaleratu dute Euskal Birusak eta Gazte Asanbladak, eta antzinako zein garaiotako 213 abesti bildu dituzte bertan. Liburu hauek salgai jarri dira dagoeneko, 6 euroren truke, eta Euskal Biruseko bazkideek 5 euroren truke eskuratu ahal izango dituzte. Interesa dutenek Elkartearen egoitzara joan beharko dira (Erdikokale zeharbidea 2, 1), 8:00etatik 12:00etara bitartean. Aldez aurretik elkartearekin harremanetan jartzeko, euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi edo 688632874 telefonora deitu beharko da. Gazte Asanbladaren bitartez ere liburuak enkargatze-ko aukera egongo da.

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Ferreteria ANBOTO
Burdindegia
Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu
943 17 69 76
607 33 11 77
ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera
KARABIXA KAFETEGIA

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Lehenengo zikloko ikasleak igerian ikasten gabiltza



Gabonetako oporrrak bukatu ostean, 1. zikloko ikasleak igerilekura joaten hasi gara Heziketa Fisikoko saioetan. Mallabian ez da goenez igerilekurik, Ermuko kiroldegira joaten gara, autobusean. Beraz, astelehenetan azkar-azkar bazkaldu, eta 14:25ean autobusa hartzen dugu bertara joateko. Oso dibertigarria da, abesten joaten gara eta bidai berehala pasatzen da.

Haur Hezkuntzako ikasleak chef bilakatu dira



Joan den abenduan HHko ikasleak Lasturrera joan ziren. Errota bisitatu zuten eta irina nola ateratzen zen ikasi zuten, eta ateratako irinarekin taloak egiten ikasi zuten. Bertan, arto irina erosi zuten gero eskolan taloak egiteko. San Tomas egunean, abenduak 21, HHko ikasleek taloak egin zituzten hamaiketako gisa. Egun horretan txistorra erabili beharrean Nocilla erabili zuten. Oso gozoak atera zitzaizkien, sukaldari apartak zarete!

Badatoz, badatoz inauteriak!



Laster datoz inauteriak, eta eskolan otsailaren 13an, asteartea, ospatuko ditugu. 2024. urtean Parisen olinpiadak ospatuko direnez, guk ere Mallabian, olinpiadak ospatzea pentsatu dugu, hori dela eta aurtengo inauterietako gaia Olinpiadak izango dira. Egun berezia izango da eta ikuskizun paregabea prestatzen ari gara; ondoren, tailerrak eta jolasak izango ditugu, besteak beste. Baina inauteriei hasiera emateko, aurreko ostegunean, otsailak 8, Eguen Zuriko koplak abestuko ditugu herriko leku desberdinetan. Galtzar egon den ohitura berreskuratu nahi dugu, horregatik ostegun horretan eskolako ikasle guztiak Mallabiko kaleetatik abesten ibiliko gara.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
PROSECCO D'ITALIA

nitida

T.943176075

RIF

**ITURGINTZA
KONPONKETAK**

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Bigotesen tabernia



1960an zabaldu zeben Felix Mirandona kortezubitarrak eta haren emazte Miren Idigoras ermuarrak Zubi-Aurre izenakin, Probalekutik Erdikokalera zoian zubixan parian zeualako, baina Felixen bibotiak emondako izendapenakin geratu zan betiko. Luzaruan itsasuan biharra egindakua zan berau, petrolero haundixetan sukaldari; arrain kontuak edarto zekixan prestatzen eta tigiari eta mejilloiak ziran bere espezialidadia.

Gustatzen jakon Arteagara juatia eta arrantzan egin, harrapautakua sukaldatzeko gero: nabajak, karramarruak... Aparteko pintxuak be prestatzen zitxuezen eta zapatu domeketarako izaten ziran txanpi eta krocketak etaraziok. 1978xan itxi zan.



 **ITZE**
OPTIKA
AUDIO
Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



ANA GÓMEZ

Haurrak eta mugikorrak: debekatu edo hezi?

"Etxean mugikorra ez emateak ez du esan nahi umeek eduki jakin batzuetara sarbiderik ez dutenik"

Ziur nago zuetako batzuei ezaguna egiten zaizuela 9-10 urteko zuen seme-alaben eskaera: "Ama/aita, nire lagunek mugikorra dute, nik ere bat nahi dut... bestela, gelako bakarra izango naiz mugikorrik ez duena".

Eta jakina, gelako norbait mugikorrarekin ikusten duen bakoitzean, egundokoa sortzen da...! Baina egia da, halaber, guraso batzuekin hitz eginez gero, konturatzen zarela istorioa errepikatzen dela. Hau da, batzuek mugikorra dutela, baina ez ikasle guztiek, ezta gutxiagorik ere!

Adin horretako umeentzako, 9 eta 10 urte ingurukoentzako, urtebetetzeetarako eta jaunartzeetarako oparirik onena izaten da mugikorra, bideojoko-makinekin batera. Baina gainera, horrenbeste erabilera dituenek, jolasteko ere erabil daitezke eskuko telefonoak.

Eztabaida kalean dago. Zein adinetik aurrera da gomendagarria haur bati mugikorra ematea? Batzuek diote DBH hasten dutenean, 12 urterekin; beste batzuek esaten dute adinik onena 16 urtetik gora dela. Dena den, etxean mugikorra ez emateak ez du esan nahi umeek eduki jakin batzuetara sarbiderik ez dutenik. Eta gainera, adin bereko haur guztiak ez dira berdinak, eta ez dute heldutasun bera.

Mugikorrek gure eguneroko bizitzako kontu asko errazten dizkigu, normalean ikusten ez ditugun pertsonekin harremanetan egoteko aukera ematen digu, eta ahalbidetzen digu hain simple bezain beharrezkoa den laguntza-dei bat egitea. Baina badu beste alde negatibo bat ere: sare sozialek gu nahastu eta irensteko arriskua, esaterako.

Egoera horretan, hezitzaileok (gurasook, tutoreok, irakasleok...) mugikorraren erabileraren alde onak eta txarrak erakutsi behar dizkiegu umei, eta ulertarazi behar diegu, oro har, begirada pantailatik altxatzen denean gertatzen direla gauzarik interesgarrienak.

Baina horretarako, guk ere, helduok, koherente eta eredu izan behar dugu.

IRUNE MARTINEZ IMIRIZALDU

Ermuan jaio zen duela 33 urte. Alaba bakarra da, berbatia eta alaia. Pedagogian lizentziatu zen, enpresa bat dauka, eta azken urte eta erdian Ermuko Jubilatuen Etxeko dinamizatzailea eta lehendakariordea da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oso oroitzapen onak ditut, pozik bizi nintzen. Plazara joaten nintzen jolastera eta, euria egiten bazuen, Merkatu Plazara. Izelaieta inguruan ere sarritan egoten nintzen, amamak Matxin Txiki taberna izan zuelako. Ikastolan ikasi nuen, Alboka Musika Eskolara nihoan, Txindurrira... leku guztietara!

Eta gaztaroa?

Ermuan ez zegoen gauza askorik egiteko: Goikon eta Ikastolako patioan ibiltzen nintzen batez ere.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Eroskiko kutxazaina!

Zer ikasi zenuen?

Pedagogian lizentziatu nintzen Donostian, eta gero master egin nuen, baina pedagogiaren esparruan aritu izan naiz beti.

Non egiten duzu lan?

Duela 10 urte enpresa bat sortu nuen beste pertsona batekin, entrenamendu kognitiboa egiteko programak sortu eta pertsona nagusiei zuzendutako formakuntzak egiteko. Kontua zabaltzen joan da, eta gaur egun nagusien zentro ezberdinetan egiten dugu lan. Horrekin lotuta, urte eta erdi daramat Ermuko Jubilatuen Etxeko dinamizatzaile eta lehendakariorde bezala.

Zer da lan horretaz gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin harremanetan egotea, oso aberasgarria da. Umeekin ere lan egin izan dut baina, aukeran, nagusiak nahiago ditut.

Eta gutxien?

Txarto zaudenean ere, aurpegia eman behar duzula. Baina tira, hori lan guztietan gertatzen da...

Lanetik kanpo...

Gauza arruntak egiten ditut, baina asko gustatzen zait bidaiatzea, esaterako.

"Asko gustatzen zait bidaiatzea, eta gauza gehienak lotu barik eramaten ditut normalean"



Zein herrialdetan egon zara?

Japonian, Kolonbian, Mexikon, Kuban, Marokon, Frantzian, Alemanian, Maltan, Ingalaterran...

Aurtengo oportretan...

Nire mutila kolonbiarra da, eta Kolonbiara joaten gara urtero.

Egiteke daukazun bidaiia...

Asko gustatuko litzaidake Peru ezagutzea.

Bidaiatzean, dena lotuta ala inprobisatzea nahiago?

Hegazkina eta lehen egunetarako hotela erreserbatzen dut; beste guztia bertan erabakitzen dut.

Kirolik praktikatzen duzu?

Bai, *acuatic*-a.

Telebistazalea zara?

Bai, baina ikusten dudun guztia Netflix edo Amazon bezalako plataformetan da: pelikulak, telesailak, dokumentalen bat...

Gustatu zaizun azken filma edo telesaila?

La sociedad de la nieve, oso ona iruditu zait!

Zinezalea zara?

Bai, eta askotan joaten naiz zinera, Durangora norma-lean. Nire pelikularik gustukoena *Cadena de favores* da. **Irakurtzen duzu?**

Lanarekin lotutako psikologiako liburuak irakurtzen ditut batez ere, hala nola nobela arrosa ere, Elisabet Benaventen estilokoa. Nire libururik gustukoena *Aran-manoth* da. DBHn irakurri nuen, eta ordutik hamar bat aldiz irakurri dut.

Irratia pizteko ohitura duzu?

Ez, podcastak entzuten ditut, gai ezberdinetakoak. Batekin hasi, eta hainbat entzuten ditut jarraian.

Jatun ona zara?

Bai, denetik jaten dut. Gainera, gustatzen zait jendeak nik kozinatutakoa jatea. Gauza arruntak egiten ditut: albondigak, okela saltsan... Sukaldaritza tradizionala, batez ere. Hala ere, gauza bereziak egiten ditut ere: Tik Token edo YouTuben ikusitako errezetak gorde eta kopiatu egiten ditut, hori da nire pasioa! Batzuetan ondo irteten dira, beste batzuetan, ordea...

Zure bertute eta akats bana?

Asko sozializatzen dudala, onerako zein txarrerako. Larregi hitz egiten dut, gauzak galdetu... behar hori daukat.

Nahiago duzu entzun ala hitz egin?

Orokorrean hitz egitea nahiago dut, baina batzuetan entzun ere egiten dut: harrirtuta geratzen naiz nire

"Esker oneko egunerokoa idazten dut goizero. Esaten dute perspektiba aldatzen duela"

"Erabakiak oso arin hartzen ditut, ez dut pentsatzen, eta hori da nire beste akatsetako bat"

buruarekin!

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Jendeak tontakeriak esaten dituenean, jakin barik hitz egiten dutenean.

Eta zerk barrea eragin?

Edozerk. Izaera alaia dut.

Erraz haserretzen zara?

Ez, baina haserretzen naizenean asko haserretzen naiz, eta denbora luzerako. Herratsua naizela esango nuke.

Zerbait erakutsi dizu bizitzak?

Besteengan horrenbeste konfiantza ez izaten. Tristeia den arren, benetako oso lagun gutxi ditugu.

Zer miresten duzu pertsona batengan?

Gezurrik ez esatea.

Koadrilan ibiltzekoa zara?

Bai, lagunekin egotea gustatzen zait, baina eguneroko errutinan zaila da haiekin egoteko denbora topatzea.

Badago eguneroko kale egin gabe egiten duzun zerbait?

Bai, duela hilabete batzuk hasi nintzen esker oneko eguneroko bat idazten, eta goizero egiten dut. Esaten dute bizitzaren perspektiba aldatzen duela...

Zein da zure eguneko momentua?

Gosaria. Trankil gosaltzea gustatzen zait, bakarrik, eta lasai.

Puntuala zara?

Bai, eta gustatzen zait besteak ere puntual izatea.

Inoiz hartu duzun erabakirik zailena?

Erabakiak arin hartzen ditut, ez dut pentsatzen, hori da nire beste akatsetako bat. Batzuetan oldartsua naiz, beste batzuetan burugabekoa, kar-kar.

Bidaia bat nora, iraganera edo etorkizunera?

Etorkizunera, zalantza barik. Joan, ikusi eta bueltatu.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Bai, gehiago ikasiko nuke, gurasoei horrenbeste buruhauste ez emateko. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo-ra arte oso ikasle txarra izan nintzen, gurasoak atzean izan nituelako, bestela akabo! Gero, Unibertsitatean, oso gustura ibili nintzen.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Berri positiboak, jakina. Eta horrez gain, nire lan esparruan inbertsio gehiago egingo direla.



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
📞 943 17 47 44



Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti

SAN PELAYO
odontología
que se adapta a ti

📍 PLAZA GARCÍA ARREGUI 11 - 1.º
📞 943 17 04 04
📧 info@clinicasantipelayo.com
Programa
Ayuda Dental
Infantil
Gosaria Berria

📍 San Pelayo Zaharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

1935

E R M U A

Urte horretako martxoaren 14an Eibarko Ortuoste y Castrilloren argazki-estudioan erretratatu zituzten Pilar eta Esteban Bilbao Aranburu. Mallabiko Malengoneko Bizente eta Osmaldeko Bittoriren seme-alabak, sasoi horretan Ermuan bizi zen familia, Zubiaurren, eurena zen Malengoko errota eta okindegi gaineko etxean.



1965

M A L L A B I A



Argazki hau 1965 urte inguru-koa da eta Mallabiko bodegan aterata dago. Ez ditugu ezagutzen agertzen diren guztien izenak, ea *Drogeteniturrri*ko irakurleok laguntzen diguzuen falta diren izenak topatzen. Lehenengoa, laugarrena eta bostgarrena ez ditugu ezagutzen. Besteak hauek dira: ++Jose Luis Sarrugarte, Benancio Garitagoitia, Mari Conchi Arriaga, Jose Urrutxurtu, Bernabe ..., eta Federico Pradera.

IRAGARKI LABURRAK

Antxitxiketan begirale taldea langile bila dabil. Baldintzak: euskara maila altua, DBHn errefortzu akademikoa emateko gaitasuna, umeen taldeak dinamizatzeko gaitasuna, berehalako prestutasuna. Baloratuko da: begirale titulua eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak. Interesa dutenek: antxitxiketan@antxitxiketan.com

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsalde. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntza graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com Azken eguna: Otsailaren 16an.



Urtarrilaren 25ean
Zorionak **Julen!!** 8 urte gure etxeko erregeak!! Jarraitu ezazu ikastolarekin eta zure zale-tasunekin gozaten!! Egun polita izan etxeko guztion partez!



Otsailaren 15ean
Zorionak **Mateo** zure 3. urtebetetzean! Segi beti bezain alai eta maitagarri. Musu handi bat familia guztiaren partez! Askok maite zaitugu!



Otsailaren 5ean
Bi eskuak ez dira nahikoak!! Ze haundi egin zaren **Lukita!** Ez galdu inoiz daukazun bizipoza hori! Maite zaitugu! Ama, aita eta Claudiaren partez



Otsailaren 14an
Zorionak **Claudia!!** Hain txikia izanda...ze haundia zaren! Ez galdu inoiz duzun xarma!! Zuk diozun bezala... Parisera eta buelta maite zaitugu!!




Urtarrilaren 28an
Zorionak maitxi! 8 urte jada. Muxu erraldoia familia osoaren partez



Urtarrilaren 29a
Zorionak **Naia!** Disfrutatu zure 8. urtebetetzean eta jarraitu zaren modukoa izaten, lagun zoragarria zara! Patxo eta besarkada erraldoi bat Vega eta Mateo super lagunaren partez! Maite zaitugu!



Otsailaren 18an
Zorionak **Martin!** Raketak, eskalada, eskia, bizikleta... zelako mutil trebea eta majua zaren! Ilargiraino ta buelta maite zaitugu! Ea noiz ospatzen dugun 6. urtebetetzea zure pizza batekin.



Otsailaren 22an
Zorionak **Roma** prexioxi! Urtebete gure bizitzak alaitzen irribarre polit horrekin! Patxito pila izeko Nere eta familia osoaren partez! Izugarri maite zaitugu, maitia!

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKURU 3 - 943 170565
ERMUA

SEHIGA
PROTECCION LABORAL PLAN BARRERAKO GONDIRA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ilepainen degia
Silvia
peluqueria
Asteartetik ostiralera
9:00 - 12:00 15:00 - 19:00
Larunbata 8:30 - 13:00
943 170474
688819336

30 OTSAILEKO AGENDA

ZINEA

3tik 5era:

"Valle de sombras" +
"8 apellidos marroquies"

10etik 12ra:

"Chicas malas" +
"Cuando acecha la maldad"

17tik 19ra:

"El correo" + "Felices 50"

24tik 26ra:

"Un mal día lo tiene
cualquiera" + "Miller's girl"
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 1:

"Perfect days"

Hilak 8:

"La memoria infinita"

Hilak 15:

"La zona de interés"

Hilak 22:

"El rapto"

Hilak 29:

"Pobres criaturas"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

ANTZERKIA

Hilak 2:

"Kortxoaren dilema", Tartean
taldearen eskutik. 20:30ean.
Ermua Antzokian. 10 €

Hilak 16:

"El sonido oculto", Toni Aco-
sta eta Omar Ayusorekin.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €

HAURENTZAKO

ZINEA

Hilak 4:

"El fantasma de Canterville"

Hilak 11:

"Patrick" (euskaraz)

Hilak 18:

"Katak. La pequeña ballena"

Hilak 25:

"¡Corre, Tiger, corre!"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 7:

Kontzertua: Alboka Musika
eskolako ikasleak. 18:30ean.
Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 17:

Blues kontzertua: Motelas.
20:00etan. Lobiano Kultur-
gunean. Sarrerak: 10 €.

Hilak 23:

Kontzertua: Chica sobresalto.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrerak: 12 €.

Hilak 24:

Rock kontzertua: We are
apes, Hello + Detroit.
20:00etan. Lobiano Kultur-
gunean. Sarrerak: 5 €.

HAURENTZAKO

EKITALDIAK

Hilak 3:

Haurrentzako ipuin-konta-
keta ingelesez. 17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilak 17:

Haurrentzako musikala:
"Emozio festa!". Ene kantak
taldearen eskutik. 17:00etan.
Ermua Antzokian. Sarrera: 6 €

Hilak 24:

Haurrentzako ipuin-konta-
keta. 17:30ean. Lobiano Kul-
turgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 1:

Pintura azkarraren master
classa. 19:00etan. Lobiano
Kulturgunean.

Hilak 4:

Agata Deunaren kalejira.
11:30etik aurrera. Abeletxe-
ko egoitzatik irteanda.

INAUTERIAK

Otsailak 8, osteguna.

Eguen zuri

16:00etan: Oilarraren jokoa.

17:30etan: Diskofesta: Xaibor
DJarekin.

Otsailak 9, ostirala.

Hartza eguna

18:30etan: Kalejira Udale-
txetik.

Otsailak 10, larunbata

12:30etan: Mozorro lehiaketa-
ren kuadrillen kalejira.

13:00etan: Kalejira Irulitxa
txarangarekin.

17:30ean: Haurrentzako txo-
kolatada.

18:00etan: Haurrentzako
dantzaldia Zirika Zirkus tal-
dearen eskutik.

19:00etan: Kalejira Irulitxa
txarangarekin.

19:30ean: Haurrentzako mo-
zorro lehiaketa.

20:00etan: Diskofesta Maxi-
munsekin.

23:00etan: DJ Festa Festa Los
40rekin.

Otsailak 11, ast eartea

16:30etan: Haurrentzako dis-
koteca

19:30etan: Erromeria Ekhy tal-
dearekin

23:00etan: DJ Festa Oihan
Vegarekin.

Ekitaldi guztiak Orbe Kardi-
nalen Plazan.

Babeslea: Ermuko Udala.

Partaideak: Ongarai Esko-
la, Eskolabarri, San Lorenzo
ikastetxea, San Pelayo ikas-
tetxea, Anaitasuna Ikastola,
Deba-Beheko Bertso Eskola,
Euskal Birusa, Txindurri tal-
dea, AEK Euskaltegia, Udal
Euskaltegia, Alboka Musi-
ka Eskola eta Antxixiketan
taldea.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzarriak
- * Errealak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak



VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
 **Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
 **ORBE**
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixu 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 96 60
persianatorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
 **Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

 **PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA

 **ELECTRICIDAD**
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



<https://artarrai.blogspot.com/>
artarraitmenditaldea@gmail.com
Tel. 638 050 634

OSTEGUNERO, 19:15 EAN SAN ANTONIO ERMITAN

Mendi irteerak, informazioa, mapak,
materialaren alokairua,
federatzeko izapideak, hitzaldiak,
Ikastaroak...



**ARTARRAI MENDI
TALDEA**



HIRU TXIKIAK
URKO-OIZ-EGOARBITZA